




Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak (2001-2023)



2023ko azaroa



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

I. SARRERA	3
II. HELBURUAK ETA IRISMENA	4
III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	6
IV. SODENAREN ERANTZUKIZUNA	9
V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	10
1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	11
2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK.	13
2.1 Nafarroaren Garapen Sozietatea SL	13
2.2. Parque de la Naturaleza SA	14
2.3 Sodenak Parquenasari emandako laguntza finantzarioa	20
2.4. Parquenasaren kontabilitate egoera eta zenbatekoa Sodenaren urteko kontuetan	27
2.5 Bazkideen egoera Sodenaren ekarpen finantzarioen aurrean	31
2.6 Kredituen kapitalizazioa, eta Parquenasari sozietate publiko bilakatzeko ekarriko lituzkeen ondorioak	32
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	





I. Sarrera

EH Bildu talde parlamentarioaren eskaera aintzat hartuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 21ean, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezala Nafarroaren Garapen Sozietatea SL enpresa publikoak (hemendik aurrera, Sodena) Parque de la Naturaleza de Navarra SA enpresari (aurrerantzean, Parquenasas) egindako ekarpen finantzarioei buruz; zehazki, alderdi hauen gainean:

- *Parquenasak aurrera daraman Natura Parkearen proiektuari sektore publikotik egindako ekarpen guztiak.*
- *Horien zenbatekoa eta Sodenan duten kontabilitate egoera.*
- *Zer aukera dagoen gainerako bazkideei beren jabetzako kapital sozialaren arabera egin behar zituzketen ekarpenak erreklamatzeko saiatzeko.*
- *Sodenak emandako kredituen kapitalizazioa, eta horrek ekarriko lituzkeen ondorioak Parquenasas sozietate publiko bilakatzeko gero.*

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorritik, eskatutako fiskalizazioa egin du.

Azterketa lana 2023ko martxotik ekainera bitartean egin du auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzaizkien Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari, Sodenari eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari (aurrerantzean, NEKP), alegazioak egin zitzaizkien.

Ezarritako epean Sodenak eta NEKPk alegazioak aurkeztu dituzte, eta txosten honetan jasotakoak, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.



II. Helburuak eta irismena

Parlamentutik jasotako eskaera kontuan hartuta, lan honen helburua da konklusio bat azaltzea eskatutako gaiei buruz. Honako hauek dira:

- Parquenasak aurrera daraman “Sendaviva” Natura Parkearen proiektuari sektore publikotik egindako ekarpen guztiak kuantifikatzea.
- Horien zenbatekoa eta Sodenan duten kontabilitate egoera egiaztatzea.
- Aztertzea zer aukera dagoen gainerako bazkideei beren jabetzako kapital sozialaren arabera egin behar zituzketen ekarpenak erreklamatzeko saiatzeko.
- Aztertzea Sodenak emandako kredituen kapitalizazioa eta horrek zer ondorio ekarriko lituzkeen Parquenasako sozietate publiko bilakatuz gero.

Fiskalizazioaren irismen objektiboari dagokionez, dokumentu hauek hartu dira kontuan, besteak beste:

a) Sodena:

- Auditoretza egin zaien urteko kontuak.
- Sodenako Administrazio Kontseiluaren eta Parquenasako Batzar Orokorren aktak.
- Parquenasako sozietateko bazkideen artean sinatutako akordioak, eta Sodena eta Parquenasaren artean sinatutako finantzaketa kontratuak.

Sodenak fiskalizazioaren esparruan eskatu zaizkion dokumentu guztiak aurkeztu ditu.

b) Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzua

- Sodenak Parquenasari urtero maileguak emateari buruz hartutako gobernu erabakien espedienteak.

c) NEKP

- Parquenasako partaidetza Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SL (hemendik aurrera, Nicdo) sozietate publikoari saltzeko eskriturak eta dokumentazioa.

d) Parquenasako

- Sozietatearen estatutuak
- 2022ko ekitaldiko urteko kontu auditatuak

Denbora-norainokoak 2001etik 2023ko ekainaren 30era arteko aldia hartzen du. Sodenak akzioak Nicdo sozietate publikoari saldu bitarteko aldia aztertzeko eskatu zuen Parlamentuak, baina egokitzat jo da gure lanak aldi luzeagoa hartzea, hain zuzen ere azterketa lana amaitu den egunera artekoa, hau da, 2023ko ekainaren 30era artekoa, erosketa horren ondoren sozietate-



jokaleku berri bat sortu delako eta erosketa hori gertaera garrantzitsua delako.

Gure lanak parkearen jarduerari buruzko zenbait datu biltzen dituen arren, ez dago lan honen irismenean azterketa egin eta konklusioak ateratzea sozietatearen kudeaketa ekonomikoari buruz, ezta inpaktu sozioekonomikoaren gaineko urteroko txostenei buruz ere.



III. Konklusioak eta gomendioak

Nafarroako Parlamentuak adierazitako gaiei dagokionez atera ditugun konklusioak azalduko ditugu. Zenbait datu ekonomiko 2022ko abenduaren 31koak dira eta Sodenaren azken urteko kontu auditatuei dagozkie, eta beste batzuk 2023ko ekainaren 30era artekoak dira.

A.- Parquenasak aurrera daraman Natura Parkearen proiektuari sektore publikotik egindako ekarpen guztiak kuantifikatzea.

- Parquenasak eratu zenetik Sodenak Nicdori akzioak saldu zizkion arte, jasorik dauden ekarpen bakarrak Sodenak egindako 83,41 milioiko ekarpenak dira. Horietatik:

a) 4,05 milioi jarri ziren % 45eko partaidetza hartzeko kapital sozialean, eta guztiz narriatuta daude.

b) 79,36 milioi jarri dira mailegu gisa, eta horietatik 56,80 milioi partaidetza-maileguak dira. Gainerako 22,57 milioiak mailegu arruntak dira.

- 2023ko urtarrilean Sodenaren partaidetza guztiak Nicdo sozietate publikoari eskualdatu zitzaizkion. Finantzaketa sistema aldatu egin da eta Parquenasarentzako 5,8 milioiko dirulaguntza izenduna ageri da Kultura eta Kirol Departamentuaren 2023ko aurrekontuetan.

B.- Horien zenbatekoa eta Sodenan duten kontabilitate egoera egiaztatzea.

- Emandako kredituen zenbatekoa eta kontabilitate egoera honako hauek ziren 2022ko abenduaren 31n, Sodenaren urteko kontu auditatuetan agerienez:

Kredituak	2022
Emandako zenbatekoa	78.104.448
Interesak	187.706
Narriadura	-55.780.244
Guztira	22.511.910

Urteko kontuetan adierazten denez, 56,80 milioiko mailegu horiek partaidetza-maileguak dira.

- Nahiz eta Sodenaren urteko kontuen arabera maileguen kontabilitate balioa 2022ko abenduaren 31n 22,51 milioikoa den (narriatutako zenbatekoak kendu eta gero), Parquenasak 78,30 milioiko zorra du Sodenarekin. Hala ere, igo egin da eta 79,36 milioira iritsi da 2023ko ekainaren 30erako.



Hori dela-eta, nabarmendu behar dugu, sozietatearen egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta, Parquenasak nekez itzul ditzakeela maileguak, ez muga-egunetan behintzat, beheko taulan zehazten den bezala:

(milakotan)

	Emanda	Ordainduta 2022/12/31	Ordainduta 2023/06/30	Interesak	Muga eguna
Maileguak 2005-2019 +2021+2022	72.104	72.104	72.104	25	2027/03/15
Mailegua 2020 + Plan Estrategikoko inbertsioa	5.900	5.893	5.893	163	2025/05/31
Mailegua, sutea dela-eta 2022	1.500	107	1.364		2034/12/01
Guztira	79.504	78.104	79.361	188	

- Maileguak emateko urteroko baimen-eskaeretan, Sodenak adierazi izan du mailegu horiek kobraezin gisa hornitzen direla osorik. Kontu horri dago-kionez, atentzioa ematen du oraindik ageri direla 22,51 milioiko mailegu berreskuragarriak, nahiz eta eskaeretan kobraezintzat jotzen ziren, eta ez dela bideragarritasun planik egin haiek itzultzeko, eta Parquenasak berak zer nolako finantza egoera duen.

- Partaidetza-mailegua ezaugarri espezifikoak dituen finantzaketa mota da, eta ezaugarri horiek mailegu arruntetik bereizten dute. Honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Partaidetza-maileguak ondare garbitzat jotzen dira, merkataritzako legerian aurreikusten diren kapital-murrizketari eta sozietateen likidazioari dagokienez.
- Kapitalizazioaren bitartez amortizazio aurreratua egin daiteke. Horretarako enpresaren kapitala handitu behar da amortizatzen den maileguaren zenbatekoa gehituz.

Hala ere, partaidetza-mailegua izan arren, itzuli beharrekoa da, bere izaera juridikoak hala eskatzen duelako.

Sodena eta Parquenasaren arteko 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratuak kapitalizazioa mugatzen du halako moduan non Sodenak ezin baitu % 50etik gorako partaidetza izan kapital sozialean. Nicdori saldu arte jada % 45eko partaidetza zuenez, muga horrek ondorio hau zekarren: gehieneko zenbateko kapitalizagarria, balio izendunean, kapital sozialaren % 5 izatea, hau da, 90.000 euro. Halaber, sozietatearen Batzar Orokorraren onepena behar litzateke.

Muga horiek galarazi dute partaidetza-mailegu gisa emandako 56,80 milioiak balio izendunean kapitalizatzea.



Merkataritzako araudian partaidetza-maileguak ondare garbitzat jotzearen helburua da saneamendua ahalbidetzea kontabilitate-ondorioetarako. Horrela, enpresei aukera ematen zaie nahitaezko desegitea geroratzeko, eta errazago suspertzen ahal dira. Helburua ezin da izan egoera horrek mugarik gabe irautea, ordea. Parquenasak 18 urte daramatza egoera horretan.

Beraz, kontabilitateko tratamendua gorabehera, eta Parquenasaren finantza egoera kontuan hartuta, errealitatea da mailegu horiek ezin izanen direla itzuli muga-egunean.

C.- Aztertzea zer aukera dagoen gainerako bazkideei beren jabetzako kapital sozialaren arabera egin behar zituzketen ekarpenak erreklamatzeko saiatzeko.

Sodenak Parquenasari egin dizkion ekarpen finantzarioak kapitala eta maileguak izan dira, eta 2005az geroztik Sodena izan da sozietateko bazkide mailegu-emaile bakarra. Egoera horren abiapuntuan 2005eko urtarrilaren 31ko eta abenduaren 30eko finantzaketa kontratuak daude, Sodenak eta Parquenasak sinatuak. Kontratu horiek indarrean diraute, alderdi sinatzaileak behartzen dituzte, eta baliozkoak dira merkataritza-legeriaren arabera.

Ez da ahaztu behar, halaber, Sodenak finantza eragiketa horien formalizazioa proposatu zuela Sendaviva parkearen bideragarritasunari eusteko interes publikoaren onerako, bazkide pribatuek ez baitzuten interesik agertu, inbertsioak batere errentagarritasunik ez zuela-eta.

Ondorioz, gure iritziz, ez dago inolako lege arrazoirik gainerako bazkideei –bai hasierako bazkideei bai gero horien partaidetzak erosi zituztenei– maileguz emandako diru kopuruak erreklamatzeko oinarria eman dezakeenik, sozietate anonimo batean bazkideek ez dutelako pertsonalki erantzuten sozietatearen zorrez. Horrela adierazten du 1. artikuluan uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, Kapital Sozietatei buruzko Legearen testu bategina onesten duenak.

D.- Aztertzea Sodenak emandako kredituen kapitalizazioa eta horrek zer ondorio ekarriko lituzkeen Parquenasari sozietate publiko bilakatuz gero.

- Aurrean azaldu den bezala, 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratuak kapital sozialaren % 50etik gorako partaidetza-maileguak kapitalizatzea eragozten zuen; horregatik Sodenak ezin izan du lortu kapital horretan gehiengo osoa izatea eta, horrenbestez, Parquenasari sozietate publiko bilakatzea.



- Hala ere, akzio guztiak Nicdori saldu izanak sozietate-jokalekua aldatu du, orain Nicdo baita bazkide publikoa Parquenasan. Beraz, Sodenak bazkide izateari utzi dio, eta Parquenasaren mailegu-emailea baino ez da.

Egoera berri honek aukera ematen dio bere partaidetza-maileguak kapitalizatu ahal izateko harik eta gehienez akzioen % 50 eskuratu arte, baldin eta sozietatearen Batzar Orokorrak kapitalizazio hori baimentzen badio, oraindik indarrean baitago 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratua.

Kapitalizazioa gauzatuko balitz, Sodena berriz izanen litzateke bazkide eta Parquenasara sozietate publiko bilakatuko litzateke, partaidetza publikoak (Nicdo eta Sodena) gehiengoa izanen lukeelako.

- Parquenasara bilakatuko balitz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko enpresa-sektore publikoko sozietate publiko, sektore horri aplikatzekoak diren zuzenbide publikoko arauak bete beharko lituzke. Horien artean aipatzekoak dira txosten honen 2. gehigarriaren 2.6.2 apartatuan arau nagusitzat nabarmendu ditugunak.

- Sozietateko bazkide publikoak bere gain hartu du haren kudeaketa, administratzaile bakarraren figuraren bitartez, bai eta finantza sostengua – 2005etik aurrera– eta arrisku guztiak ere. Uste dugu egoera hori ez datorrela bat Parquenasara sozietate pribatua izatearekin.

Aurrekoa dela-eta, hona hemen gure gomendioak:

- *Parquenasak defizit egoera iraunkor eta egiturazkoa duela eta finantzaketa pribatua erakartzeko aukera urriak dituela ikusita, aztertzea ea “Sendaviva” proiektua kudeatzen duen merkataritza sozietate pribatu gisa bideragarritasunik izan dezakeen.*

- *Bazkide pribatuekin batera aztertzea haien partaidetzak Nicdori prezio sinboliko baten truke saltzeko eta Parquenasara sozietate publiko bihurtzeko aukera.*

- *Edo, bestela, Parquenasari planteatzea Sodena titularra den partaidetza-mailegu guztiak edo batzuk kapitalizatzeko aukera, guztizko partaidetza publikoak kapital sozialaren gehiengoa lor dezan eta Parquenasara sozietate publiko bilaka dadin.*

IV. Sodenaren erantzukizuna

Sodenaren erantzukizuna izan da Parquenasarekin egin dituen jarduerak eta eragiketak aplikatu beharreko merkataritza arloko legeriarekin bat datozela bermatzea, eta, halaber, funts publikoen kudeaketa egokia bermatzea.



V. Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da fiskalizazioan oinarritutako konklusioak adieraztea Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak direla-eta, Parlamentuak eskatu digun bezala.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere betetze-fiskalizazioei buruzko ISSAI-ES 400 delakoa aplikatu dugu, bai eta Kanpo Kontroleko Organoen Fiskalizazio Gida Praktikoetan jasotako gidalerroak ere.

Printzipio eta jarraibide horiek behartzen gaituzte etika-baldintzak betetzera eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa halako moldez egitera non moduzko ziurtasun bat lortuko dugun, baliabide publikoen kudeatzea muntazko alderdi guztietan arau indardunen araberakoa izateaz. Fiskalizazio bat egiteko, aplikatu beharrekoak dira iritsitako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzeko prozedurak. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du lortutako konklusioei funtsa emateko.

Miguel Ángel Aurrecoechea auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak
digitalki sinatua alboan adierazitako egunean)*



1. gehigarria. Arau-esparrua

Fiskalizazio honi aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

- 1/1984 Foru Legea, urtarrilaren 2koa, Nafarroaren Garapen Sozietatea SA sortzeari buruzkoa.
- 17/1985 Foru Legea, irailaren 27koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun publikoari buruzkoa.
- 15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.
- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.
- 8/2009 Foru Legea, ekainaren 18koa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.
- 10/2014 Foru Legea, maiatzaren 16koa, OPFL aldatzeari buruzkoa.
- 19/2014 Foru Legea, urriaren 28koa, 10/2014 Foru Legeari xedapen iragankor bakarria gehitu ziona.
- Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeak, batez ere 2014tik 2023ra bitartekoak, eta haien aldaketak.
- Sodena Saren eraketari buruzko 68/1984 Foru Dekretua, 109/1984 Foru Dekretuaz aldatua.
- 216/2019 Foru Dekretua, irailaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura arautzen duena.
- 1885eko abuztuaren 22ko Errege Dekretua, Merkataritza Kodea argitaratzekoa.
- 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Sozietate Anonimoen Legearen testu bategina onestekoa (2010eko irailaren 1era arte egon zen indarrean).
- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, zeinaren bitartez onesten baita Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen testu bategina (2010eko irailaren 1etik aurrera dago indarrean).



- 1643/1990 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena, 2002tik 2007ra bitarteko ekitaldietarako.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena, 2008ko ekitalditik aurrerako ekitaldietarako.
- Parque de la Naturaleza SA sozietatearen estatutuak.
- Parque de la Naturaleza SA sozietateko bazkideen artean sinatutako akordioak, eta Sodena eta Parquenasaren artean sinatutako finantzaketa kontratuak.



2. gehigarria. Fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuk.

2.1 Nafarroaren Garapen Sozietatea SL.

2.1.1 Alderdi orokorrak.

Sodena Nafarroako Gobernuaren laguntza finantzariorako tresna da, balio erantsia duten enpresa proiektuak Foru Komunitatera erakartzeko eta gartzeko.

Merkataritza sozietate gisa 1984an sortu zen, Nafarroaren Garapen Sozietatea sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legea onetsi zenean (hasieran sozietate anonimoaren forma juridikoa izan zuen).

Nafarroako sektore publikoa berregituratzeko prozesuaren ondoren, 2011ko azaroan Nafarroako Gobernuaren lau sozietate publikok bat eginda eratu zuten enpresa da, eta erantzukizun mugatuko sozietatearen forma juridikoaren pean jarduten du, NEKP bazkide eta partaide bakarra duela.

2.1.2 Finantza tresnak

Honako hauek dira Sodenak inbertsio proiektuak finantzatzeko erabiltzen dituen finantza tresna nagusiak:

- Sortzea sustatzen dituen enpresen kapitalean parte hartzea, edo, bestela, kapitala handitzen duten enpresetan edo bat egiten edo berregituratzen diren enpresetan.

- Mailegu soilak eta partaidetza-maileguak ematea. Honako hauek dira partaidetza-maileguen ezaugarriak:

- Interesak osagarri finko bat eta osagarri aldagarri bat ditu, azken hori enpresaren negozio-adierazleei lotua.

- Amortizazioa aurreratu egin daiteke mailegua kapitalizatzen bada, hau da, amortizazio hori konpentsatzen bada enpresaren funts propioak handituz amortizazioaren zenbateko berean.

- Kredituen lehentasun ordenan, partaidetza-maileguak hartzekodun arrunten ondoren kokatzen dira.

- Partaidetza-maileguak ondare garbitzat jotzen dira, merkataritza-legerian aurreikusten diren kapitala murriztu beharrari eta sozietatea desegin beharrari dagokienez.



2.2. Parque de la Naturaleza SA.

2.2.1 *Parkearen proiektuaren aurrekariak eta sozietatearen alderdi orokorrak*

Arguedasko udalerrian naturaren parke bat (Sendaviva) egiteko proiektua Nafarroako Gobernuak hasi eta sustatu zuen, Nafarroako turismo sektorea indartze aldera. Proiektu hori ezartzeko, hasiera batean 18,65 milioiko inbertsioa aurreikusi zen, eta 2001eko azaroaren 23an Parquenasa merkataritza sozietatea eratu zen sozietate anonimo gisa, bederatzi milioiko kapitalarekin.

Kapital soziala eta sozietatearen osaera

Sodenak haren eraketan parte hartu zuen beste lau bazkiderekin, 4,05 milioi jarrita –kapitalaren % 45–, eta enpresan zortzi urtez, 2009ra arte, gelditzeko konpromisoa sinatu zuen.

Urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legeak ezartzen dizkio Sodenari enpresen kapitaleko gehieneko partaidetza eta bazkide izateko gehieneko aldia. Zehazki, 6.1 artikuluan hau ezartzen da: “*Sodenak sozietateen kapitalean parte hartu ahalko du... gutxienez % 5eko eta gehienez % 45eko portzentajearekin, eta gehienez 10 urtean*¹.” Artikulu horren 3. apartatuaren arabera, muga horiek “*salbuespenezko kasuetan aldatu ahalko dira, berariaz baimena ematen badu Foru Diputazioak*” (gaur egun Nafarroako Gobernuak).

Hamar urte baino gehiagoz bazkide izateko berariazko baimena 2016ko azaroan eman zen lehenengoz, eta 2011ko ekitaldian eskatu behar zen. Baimen hori Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez eman zen. Erabaki horretan baimena eman zen Sodenak bazkide izaten jarraitzeko beste hamar urtez, 2026ra arte, ezertan eragotzi gabe beste luzapen baterako aukera.

¹ Gaur egun 12 urteko epea dago, abenduaren 27ko 30/2018 Foru Legearen arabera.



Sozietatea eratu zenean honela zegoen osatuta:

Akziodunak 2001ean	Partaidetza ehunekoa	Kapital soziala
Nafarroaren Garapen Sozietatea SA	45	4.050.000
Grupo Corporativo Empresarial de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra SA	15	1.350.000
Parque de Atracciones, Turismo y Actividades lúdicas internacionales SL (Patali)	25	2.250.000
Construcciones Sanzol SA	10	900.000
La Información SA	5	450.000
	100	9.000.000

Geroago akzioen banaketa aldatu egin zen taula honetan laburbilduta azaltzen den bezala:

Eraketan akzioak harpidetza 2001/11/23	Patalik GCANi saltzea 2002/04/29			CANek saltzea 2023/12/16			Patali irtetea 2007/06/18				
	Partaide- tzak	%	Eskualda- tuak	Amaiera- koak	%	Eskualda- tuak	Amaiera- koak	%	Eskualda- tuak	Amaiera- koak	%
Sodena SA/SL	405.000	45	0	405.000	45		405.000	45		405.000	45
GCAN/Hiscan	135.000	15	45.000	180.000	20	-19.287	160.713	17,86		160.713	17,86
Patali	225.000	25	-45.000	180.000	20		180.000	20	-180.000	0	0
Sanzol/Pronaocio	90.000	10	0	90.000	10	12.857	102.857	11,43		102.857	11,43
La Información/Cofor	45.000	5	0	45.000	5	6.430	51.430	5,71	180.000	231.430	25,71
Guztira	900.000	100	0	900.000	100	0	900.000	100		900.000	100

Beraz, hau izan da sozietatearen osaera 2007ko ekainetik hasi eta 2023ko urtarrilean akzioak Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SLri (aurrerantzean, Nicdo) saldu arte:

Akziodunak	Partaidetzaren ehunekoa
Nafarroaren Garapen Sozietatea SL	45
Hiscan Patrimonio SAU	17,86
Pronaocio SLU	11,43
La Información SA ²	25,71
Guztira	100

² 2022ko irailaren 30ean, Cofor Navarra SLU sozietatea azkendu egin zen, La Información SA sozietateak xurgatu eta harekin bat egiteko eragiketaren ondorioz.



Akzioetan eta kapital sozialean izandako aldaketei buruz, hiru kontu esanguratsu aipatu behar ditugu:

- Akzioen eskualdaketak enpresa talde bereko enpresen artean egin dira, funtsean. Ez dago besteen aldean bereziki pribilegiatutako akziorik.
- Aldaketak izan dira bazkideetan edo haien partaidetzaren ehunekoetan, baina ez da akzio berririk jaulki, ez eta akziorik amortizatu ere sozietatea eratu zenez geroztik. Beraz, akzio kopurua eraketaren unekoa bera da: 900.000.
- Aldaketa bakarra akzioen nominalari dagokio, bi kapital-murrizketa egin baitira galerak konpentsatzeko. Hala, bederatzi milioiko hasierako kapitale-tik 1,8 milioira pasatu da, beheko taulan ageri denez:

	Hasierakoa	Murrizketa 2005eko ekaina	Kapitala 2005eko ekaina	Murrizketa 2006ko ekaina	Amaierako kapitala
Akzio kop.	900.000	900.000	900.000	900.000	900.000
Nominala	10	3,33	6,67	4,67	2
Kapital soziala	9.000.000	2.997.000	6.003.000	4.203.000	1.800.000

Gobernu organoak

Hasierako gobernu organoak Batzar Orokorra eta Administrazio Kontseilua ziren. Gutxienez lau kide zituzten eta gehienez hamar. Kontseilukideak bost urterako izendatzen dira. Gobernu organoen bilakaera dela-eta:

- 2004an Sendaviva parkea jendearentzat ireki zen eta agerian gelditu ziren zenbait akats eta emaitza negatibo. Horrek garrantzizko galerak eragin zituen.
- Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2004ko abenduaren 27ko bilkuran, eztabaidagai izan zituen diruzaintzako egoera kritikoa eta parkea erai-kitzeko lortutako banku-finantzaketaz gain³ finantzabide gehiago lortzeko ezintasuna. Egoera horren aurrean, eta gainerako bazkideek proiekturako laguntza finantzarioa emateari uko egin ziotenez, Nafarroako Gobernuak eta Sodenaren Administrazio Kontseiluak, inbertsioari estrategikoa iritzita, erabaki zuten Sodenak emanen zuela laguntza finantzario osoa eta halaber berak gainbegiratu zuela kudeaketa. Horretarako, merkataritzako esparru juridikoarekin bat etorritik, Administrazio Kontseilua kendu eta haren ordean administratzaile bakarraren figura jarriko zen.

³ Banco Vasconiak 10,5 milioiko kreditua eman zion Parquenasari, eta Nafarroako Kutxak 3,5 milioi-koa.



- 2005eko maiatzean Parquenasaren Administrazio Kontseiluak proposatu zuen Sodena izatea sozietatearen administrazio bakarra. Parquenasaren Batzar Orokorrak proposamena onetsi zuen 2005eko ekainean.

- Sodenari bost urtean behin berrituz joan zitzaion administratzaile bakarra izateko izendapena, Parquenasaren Batzar Orokorrak horretarako erabakiak hartuta 2010eko ekainaren 21ean, 2015eko ekainaren 30ean eta 2020ko maiatzaren 26an egindako bilkuretan. Azkenik, 2023ko otsailaren 2an Sodenak uko egin zion izendapenari, Nicdok akzioak erosi ondoren.

- Akzio-partaidetzak Nicdori saltzeko eragiketa 2023ko urtarrilaren 26an formalizatu zen. Ondoren, 2023ko otsailaren 2ko bilkuran, Parquenasaren Batzar Orokorrak Sodenaren uko egitea onartu zuen eta Nicdo izendatu zuen administratzaile bakarraren kargua hartzeko, estatutuetan ezarritako 5 urteko eperako. Kargu horrek indarrean jarraitzen du gaur egun.

Akzioak Nicdori eskualdatzea

Eragiketa horri dagokionez, honako hau esan beharra dago:

- 2014aren amaieran Sodenaren Administrazio Batzarrak Parquenasari hirugarren bati saltzeko aukera planteatu zuen, eta bilerak egin ziren sektoreko eragileekin, parkea saltzea edo haren kudeaketa kanporatzea helburu. Ondorioztatu zen parkea oraindik ez zela behar bezain erakargarria hirugarrenentzat eta lanean jarraitu beharra zegoela, EBITDA⁴ positiboa edo zerokoa lortze aldera.

Beste autonomia erkidego batzuetan azken hamarkadan parkeak saleros-teko egindako beste eragiketa batzuekin konparazioak egin ziren, eta agerian jarri zen, EBITDAren joera positiboaren beharra ez ezik, Sendavivak higiezin atxikietan (hotel azpiegiturretan) inbertitu beharra ere bazuela, erosleentzat erakargarria izateko.

Nolanahi ere, une hartan salduz gero, inbertsioaren kostuaren % 15 berreskuratuko zela kalkulatu zen. Hori horrela, merkatuan saltzeko itxaropen gutxi zegoela-eta, Nicdo sozietate publikoari eskualdatzeko aukera baloratu zen.

- Baina erabaki hori ez zen gauzatu 2022ko urriaren 28ra arte. Sodenaren Administrazio Kontseiluak egun horretan eman zuen baimena Sodenaren titulartasuneko Parquenasako akzioak Nicdori eskualdatzeko.

⁴ Interes, zerga, balio-galera eta amortizazioen aurretiko emaitzak.



• 2023ko urtarrilaren 26an notarioaren aurrean eskritura publikoan formalizatu zen akzioen salerosketa. Euro bateko prezio sinbolikoa ezarri zen. Sozietatea honela osatuta gelditu zen:

Akziodunak 2023an	Partaidetzaren ehunekoa
Nicdo	45
Hiscan Patrimonio SAU	17,86
Pronaocio SLU	11,43
La Información SA	25,71
Guztira	100

Eragiketa horrek aldatu egin du sozietate-jokalekua. Orain Nicdo da Parquenasako bazkide publikoa, eta Sodenak hala izateari utzi dio. Bakarrik sozietatearen mailegu-emailea izaten jarraitzen du. Emandako maileguak Sodenan ageri dira lehen bezala.

• 2023ko otsailaren 2an, Parquenaso sozietateko akziodunen Batzar Orokor berezi eta unibertsalak Sodenaren uko egitea eta Nicdo administratzaile bakar berriaren izendapena onetsi zituen.

• 2023an aldatu egin da finantzaketa publikoaren eredua: maileguen bitartez laguntza finantzarioa eman ordez, itzuli behar ez diren dirulaguntzen figuraren bitartez finantzatzen da sozietatea, eta dirulaguntza zuzenean ematen da. Horretarako, Nafarroako aurrekontu orokorretan partida izendun bat onetsi da, bat etorritz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluaekin.

Hala bada, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen 59. artikuluan hau xedatzen da:

“Dirulaguntza Parquenaso – Sendavivari” izeneko A50001-A5400-4709-458300 partidaren bidez, Sendaviva Parkearen jarduera garatzeko beharrezkoak diren edozein motatako gastuak finantzatzen ahalko dira.

Adierazten da 5,8 milioikoa dela partida horretan esleitutako zenbatekoa Kultura eta Kirol Departamentuaren aurrekontuan. Txosten hau jada idatzita zegoela, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 18ko 361E/2023 Ebazpenaren bidez, 5,8 milioiko gastua baimendu da. Parquenasari dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak ere onetsi dira, 2023an jardueraren gastuak finantzatze aldera.

Finantzaketa ereduaren aldaketa dela-eta, nabarmendu behar dugu Nafarroako Gobernuak Kontu-hartzailetza Nagusia, 2020az geroztik, behin eta




berriz agertu dela mailegu horiek laguntza publikotzat jotzearen alde, eta egokitzen duela kreditu bidezko finantzaketatik dirulaguntzetara pasatzea⁵.

2.2.2 Sendaviva parkearen jardueraren datuak eta bilakaera⁶

Beheko taulan eta grafikoan parkearen bilakaera agertzen da, jarduerari eta emaitza ekonomikoari buruzko datuen arabera:

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Bisitari kop.	-	68.086	41.600	112.426	165.848	175.135	184.576	179.029	194.478	157.777	156.040	187.035	181.500	179.235	183.719	196.566	174.008	66.731	194.806	142.022
Emaitza ekitaldian	-0,44	-2,58	-4,00	-4,46	-4,38	-4,17	-4,14	-4,30	-4,04	-4,05	-3,80	-2,86	-2,93	-2,50	-2,54	-2,44	-2,69	-3,34	-2,00	-2,21
Ebitda*	-0,28	-1,42	-2,16	-2,08	-1,73	-1,67	-1,64	-1,78	-1,56	-1,81	-1,88	-1,21	-1,28	-1,16	-1,33	-1,23	-1,62	-2,30	-0,98	-1,25

*Datuak milioitan



2020ko urtarrilean bideragarritasun plan bat aurkeztu zen 2020-2022 aldirako, parkea ikuspuntu ekonomikotik bideragarria izan zedin, bere behar operatiboetarako Sodenaren laguntza finantzarioaren beharrik izan gabe, eta bere jardueraz bere burua finantzatzeko gai izan zedin. Plan horrek hiru jo-

⁵ Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzaitza Nagusiaren 2020-05-12ko, 2021-01-26ko eta 2022-03-08ko txostenak.

⁶ Sodenak emandako informazioa.



kaleku aurreikusi zituen bisitari kopuruaren eta bisitari bakoitzeko diru-sarreraren arabera, eta inbertsio berrietarako Sodenaren 3,8 milioiko finantzaketaren beharra zegoela ondorioztatu zuen. Inbertsio horiek ia osorik gauzatuta zeuden 2022aren amaieran, gehigarri honen 2.3.2 apartatuan zehazten den moduan.

Bai COVID-19ak bai 2022ko ekaineko suteak (zeinak berriz ere Sodenaren laguntza finantzarioaren beharra sortu baitzuen, 1,5 milioikoa) atzera eragin dute plan estrategikoan aurreikusitako helburuak betetzeko prozesuan. 2020ko datuetan argi ikusten da pandemiaren eragina, eta 2021ean goranzko joera berreskuratu zen, 194.806 bisitari izan baitziren. 2022an, suteak bisitari kopurua 142.022ra jaistera eragin zuen.

Edonola ere, Parquenasak urtero kudeaketa plan bat onesten duen arren, sozietateak etengabe behar du kanpoko finantzaketa, zeren eta, Sodenaren informazioan agertzen denez, urtean 228.000-240.000 bisitarien atalasea iritsi behar baita zeroko EBITDA lortzeko; kopuru horiek nabarmen handiagoak dira aztertutako aldiko bilakaeran ikusten diren bisitari kopuruak baino; hain zuzen ere azken urteetan 180.000 bisitariko batez besteko kopurua egonkortu da.

2.3 Sodenak Parquenasari emandako laguntza finantzarioa

Sodenak ekarpen finantzario hauek egin dizkio Parquenasari:

2.3.1 Abalak

- 2003an bi abal eman ziren bi finantza entitateren aurrean, 14 milioi euroko mugarekin, Parquenasak hartutako kreditu hauen berme gisa:

a) 10.500.000 euroko poliza Banco Vasconiarekin, 2003ko maiatzaren 15ekoa⁷.

b) 3.500.000 euroko poliza Nafarroako Kutzarekin, 2003ko maiatzaren 15ekoa⁸.

Bi abal horiek jada deuseztatuta daude.

- 2010ean 180.000 euroko beste abal bat eman zen. Abal horrek bidaia agentzia gisa jardutea ahalbidetzen dio Parquenasari. Sodenaren urteko kontuetan 2022ko abenduaren 31n bizirik dirauen abal bakarra da.

2.3.2 Maileguak

2005eko ekitalditik, Sodenak finantzatu ditu inbertsio guztiak, bankuekiko zorraren amortizazioa, dagozkion interesekin, eta ustiapen defizita. Hori

⁷ Banco Vasconiak Parquenasari parkea eraikitzeko emandako mailegua.

⁸ Nafarroako Kutzak Parquenasari parkea eraikitzeko emandako mailegua.



guztia Sodenak Parquenasari maileguak emanda gauzatu da. Urtero erabakitzen da maileguen zein zati tratatu partaidetza-mailegu gisa.

Parquenasak emaitza negatiboak izan ditu sortu zenetik, eta funts propio negatiboak ditu bere jardueraren hirugarren ekitaldiaz geroztik. Hala ere, indarra duen araudiari jarraikiz⁹, partaidetza-maileguak sozietatearen ondare garbiaren zatitzat jotzen dira merkataritza-legerian aurreikusten diren kapital-murrizketari eta sozietateen likidazioari dagokienez. Beraz, sozietatea, formalki eta kontabilitate-ondorioetarako, ondare-egoera orekatuan dago, eta ez dago erorita nahitaez desegiteko legez aurreikusitako kasuetan¹⁰.

Sodenarentzat, laguntza finantzario horren arrazoiaren oinarria da Sendaviva proiektuak eragin positiboa eta errentagarritasuna dituela ikuspuntu sozioekonomikotik. 2007tik, aldian behin eragin sozioekonomikoari buruzko azterlanak egiten dira¹¹, eta horien emaitzek erakusten dute Sendavivaren eragina handitzen joan dela, eta haren balio sozioekonomikoak, Sodenaren arabera, egindako inbertsioa justifikatzen duela.

Azpiko taula horretan ageri dira Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak

⁹ Jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeko presako neurriei buruzko uztailaren 7ko 7/1996 Errege Lege-dekretuaren 20.d) artikulua –Merkataritzako legeria kontabilitate arloan aldatu eta nazioartean harmonizatzeko Europar Batasunaren araudiaren arabera egokitzeko uztailaren 4ko 16/2007 Legearen bidez aldatu zen gero–.


¹⁰ Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 363. artikulua.

¹¹ Aholkularitza enpresek input-output taulen bidezko metodologian oinarrituta egindako txostenak.



SODENAK PARQUENASARI EGINDAKO EKARPEN FINANTZARIOEI BURUZKO TXOSTENA (2001-2023)

					ORDAINDUTAKOAK. GUZTIRA						
					PARTAIDETZA						
					4.050.000						
FINANTZAKETAREN XEHAKAPENA					MAILEGUAK (*)						
	Inbertsioak	Zorren amortizazioa	Diruzaintza-defizita	FINANTZAKETA, GUZTIRA	INBERTSIO PLANA 2020-2022 (mailegua, 3,8 MM)	Sutearen ondoren irekitzeko gastua	INBERTSIOAK, SUTEA DELA-ETA (mailegua, 1,5 MM)	MAILEGU META-TUA, GUZTIRA	URTEKO PARTAIDETZA-MAILEGUA	PARTAIDETZA-MAILEGU METATUA	PARTAIDETZAKO EZ DEN MAILEGU METATUA
2001								1.377.000			
2002								2.673.000			
2003											
2004											
Guztira								4.050.000			
2005	6.057.302	525.000	3.515.149	10.097.452				10.097.452	10.097.452	0	10.097.452
2006	6.693.568	1.435.709	944.091	9.073.369				9.073.369	19.170.821	4.300.000	14.870.821
2007	5.622.327	1.911.200	2.101.264	9.634.792				9.634.792	28.805.613	4.400.000	20.105.613
2008	2.014.009	1.978.433	1.848.127	5.840.569				5.840.569	34.646.181	4.200.000	21.746.181
2009	3.225.475	1.766.754	986.154	5.978.384				5.978.384	40.624.565	3.850.000	23.874.565
2010	1.233.136	1.438.889	1.377.558	4.049.582				4.049.582	44.674.148	4.300.000	23.624.148
2011	575.258	1.613.186	1.811.864	4.000.308				4.000.309	48.674.456	4.325.000	23.299.456
2012	196.512	1.571.234	1.568.540	3.336.286				3.336.286	52.010.742	4.050.000	22.585.742
2013	186.618	1.525.145	1.704.645	3.416.408				3.416.408	55.427.151	3.850.000	22.152.151
2014	505.583	432.995	1.119.516	2.058.094				1.758.095	57.185.245	2.900.000	21.010.245
2015	232.096	750.731	1.116.804	2.099.631				2.099.631	59.284.877	2.900.000	20.209.877
2016	333.998	676.362	1.149.338	2.159.698				2.159.698	61.444.575	2.500.000	19.869.575
2017	417.183	656.981	1.371.412	2.445.576				2.445.576	63.890.151	2.500.000	19.815.151
2018	416.596	891.084	689.102	1.996.782				1.996.782	65.886.933	2.450.000	19.361.933
2019	680.565		1.319.435	2.000.000				2.000.000	67.886.933	2.700.000	18.661.933
2020	270.745		2.522.863	2.793.608	911.941			3.705.549	71.592.482	3.350.000	19.017.482
2021	429.286		1.394.641	1.823.927	1.449.679			3.273.607	74.866.089	2.000.000	20.291.089
2022	971.954		664.032	1.635.986	1.210.303	284.762	107.307	3.238.359	78.104.448	2.220.000	21.309.448
Guztira	30.062.212	17.173.704	27.204.536	74.440.452	3.571.923	284.762	107.307	78.104.448	78.104.448	56.795.000	21.309.448
ORDAINDUA, GUZTIRA (KAPITALEKO PARTAIDETZA + MAILEGUAK)					82.154.448						
2023							1.257.093	1.257.093			
Guztira	30.062.212	17.173.704	27.204.536	74.440.452	3.571.923	284.762	1.364.400	79.361.541	79.361.541	56.795.000	22.566.541
ORDAINDUA, GUZTIRA (KAPITALEKO PARTAIDETZA + MAILEGUAK)					83.411.541						



Taulan dagoen informazioaren zenbait alderdi nabarmendu behar ditugu:

Maileguen helburua

- 2005etik 2018ra bitartean, hauek baino ez dira finantzatu: Parquenasaren finantza zorra¹² (printzipala eta interesak), mantentze lanetarako eta ordezenetarako inbertsioak eta jarduera arruntaren diruzaintza-defizita. Bankuekin zorra izan den azken ekitaldia 2018koa izan da.

- 2019ko ekitalditik aurrera mantentze lanetarako eta ordezenetarako inbertsioak eta jarduera arruntaren diruzaintza-defizita baino ez dira finantzatu. Hala ere, 2019an inbertsio plan bat onetsi zen 2020-2022 urteetarako, epealdi bereko plan estrategikoan aurreikusi bezala¹³. Horregatik, 2020tik aurrera, plan horri atxikitako inbertsioak ere finantzatu dira. Zehazki, 3,8 milioiko inbertsioak, horietatik 0,3 milioi sutearen ondoren parkea berriz irekitzekoak.

- 2022ko ekitaldian parkean sutea izan zen, eta berariazko finantzaketa behar zuten inbertsioen beharra sortu zen sutearen ondorioz. 1,5 milioi izan ziren; horietatik 0,11 milioi ordaindu dira 2022an eta 1,26 milioi 2023ko ekainera arte.

Maileguen epemugak

Taula honetan azaltzen dira Sodenak emandako maileguen epemugak:

(milakotan)

	Emanda	Ordainduta 2022/12/31	Ordainduta 2023/06/31	Intere- sak	Muga- eguna
Maileguak 2005-2019 + 2021 + 2022	72.104	72.104	72.104	25	2027/03/15
2020ko mailegua + Plan estrategikoko inbertsioa	5.900	5.893	5.893	163	2025/05/31
Mailegua, 2022ko sutea dela-eta	1.500	107	1.364		2034/12/01
Guztira	79.504	78.104	79.361	188	

Baimena emateko prozedura

- Sodena 2005eko ekitaldian bilakatu zen sozietatearen mailegu-emaila, dokumentu hauen bitartez:

- Akziodunen 2005eko urtarrilaren 31ko erabakia.
- Sodenaren eta Parquenasaren arteko 2005eko urtarrilaren 31ko finantzaketa kontratua.
- Sodenaren eta Parquenasaren arteko 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratua.

¹² Banco Vasconiaren eta Nafarroako Kutxaren maileguak.

¹³ Sodenak onetsitako plana.



2005eko abenduaren 30eko kontratuaz geroztik, Parquenasak urtero-urtero finantzaketaren beharra eduki duenez, aipatu kontratuaren gehigarriak onetsi dira ekitaldi guztietan. Gehigarri horietan berritu egin da emandako finantzaketaren muga-eguna, eta Parquenasaren ondare-oreka berreskuratzeko adinako zenbatekoa partaidetza-mailegu bilakatu da.

Gainera, 2010eko gehigarrian adierazi zen kontratuak beste bost urtez jarraituko zuela indarrean. 2015etik aurrera ere gehigarri guztietan adierazi da kontratuak indarrean jarraituko duela hurrengo lau edo bost urteetan.

Horrez gain, 2020ko eta 2022ko ekitaldietan, gehigarriak ez ezik mailegu kontratuak ere sinatu dira, helburu zehatz hauetarako:

- a) 5,9 milioi 2020an, 2020-2022 aldirako inbertsio planerako; horietatik 3,8 milioi 2020-2022 bitartean gauzatu beharreko inbertsioetara bideratu ziren, eta gainerako 2,1 milioiak, berriz, 2020ko ekitaldiko ustiapen defizita estaltzera.
- b) 1,5 milioi 2022an, 2022ko suteari aurre egiteko.

• 2014ko ekitaldian aldatu egin zen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea (aurrerantzean, NOPFL). Ekitaldi horretara arte, Sodenaren Administrazio Kontseiluak onetsi zituen urteroko mailegu emateak eta partaidetza-mailegu bilakatu beharreko zatia. 2014ko ekitalditik aurrera, urteroko mailegu emateak foru legeen bitartez eta Nafarroako Gobernuak ondoren hartutako erabakiez baimendu behar dira. Hau izan da kronologia:

- Maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak NOPFLren 75. artikulua 3. apartatua eta 82. ter artikulua 2. apartatua aldatu zituen, eta testu berrian Nafarroako Parlamentuaren berariazko baimena exijitzen da edozein pertsona fisiko edo juridiko abalen edo maileguen onuradun izateko, haien zenbatekoa ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren % 5etik gorakoa denean. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen arabera izanen da; hau da, abalak edo maileguak nork emanak diren: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ala haren menpeko entitateek.

Hala ere, 2017ko amaierara arte ez zen hasi Sodena Nafarroako Parlamentuaren nahitaezko baimena eskatzen. Horregatik eskatu zen baliozkotu eta baimendu zitezela Sodenak Parquenasarekin 2014ko, 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldietan formalizatutako mailegu eragiketak. Foru lege baten bitartez eman zen baimena (11/2018 Foru Legea, maiatzaren 30ekoa, Sodenari baimena ematen diona mailegu eta abal zehatz batzuk eman diezazkion Parquenasari).

Egoera horren berri eman zen Ganbera honek 2018ko irailean emandako txosten batean ("*10/2014 Foru Legearen betetzea Foru Administrazioak 2014-2017 epean emaniko abal eta maileguetan*").



• 2018tik, aurrekontuei buruzko foru legeetan Sodenari baimena ematen zaio mailegu eta abal eragiketa gehiago egiteko Parquenasarekin, foru lege bakoi-tzean adierazten den gehieneko zenbatekoa gainditu gabe. Gero Nafarroako Go-bernuak baimendu behar ditu eragiketa zehatzak. Baimen hauek eman dira:

- 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legearen 16.4 artikulua, eta ondoren Nafarroako Gobernuak 2019ko otsailaren 13ko erabakiaren bidez emandako baimena.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak 2019an proposatu zuen, aurrekontuei buruzko foru legeak betearazteko Gobernuak urtero ematen dituen baimenak direla-eta, administrazio prozedura bat bete zedila baimen horien aurretik, nahitaezko txosten eta dokumentu batzuk bildu behar zituen. Xede horrekin, irailaren 11ko 216/2019 Foru Dekretua onetsi zen¹⁴. Hura indarrean jarri zenetik, prozedura hori betetzen da urteroko baimenak eskuratzeko.

- 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 14.8 artikulua, eta ondoren Nafarroako Gobernuak 2020ko maiatza-zen 13ko erabakiaren bidez emandako baimena.

- 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen 14.8 artikulua, eta ondoren Nafarroako Gobernuak 2021eko urtarrilaren 27ko erabakiaren bidez emandako baimena.

- 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14.7 artikulua, eta ondoren Nafarroako Gobernuak 2022ko martxoaren 9ko erabakiaren bidez emandako baimena. Artikulu hori aldatu egin zuen azaroaren 8ko 30/2022 Foru Legeak (2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena), eta 3,2 milioira igo zen baimenaren gehieneko zenbatekoa, 1,5 milioi gehiago sartzeko, suteak eragindako inbertsioei aurre egiteko behar zirenak, inbertsio horiek 2023rako gauzatuta egon zitezten. Gobernuaren 2022ko azaroaren 30eko erabakiak finantzaketa hori baimendu zuen.

Bestalde, arestian aipatutako 30/2022 Foru Legeak Sodenari baimena eman zion emandako maileguen interes tasak alda zitzaizkion eta Parquenasarentzako maileguen interes tasak finka zitzaizkion. Baldintza hau ezarri zuen: interes horiek sortuko dira, bakar-bakarrik, mailegu-hartzaileak ekitaldian emaitza positiboak lortzen baditu, eta aldaketak ez du eraginik izanen foru legeak indarra hartu aurretik mailegu horietan jada sortutako interesetan, NOPFLrekin bat etorritik.

Gai horri buruz, azpimarratzen dugu Kontu-hartzailetza Nagusiak 2022ko martxoaren 8ko txostenean agerian jarri zuela egoera hori, eta horregatik eskatu zela behar ziren lege aldaketak egiteko, horrela, hala bazegokion, egoera jakin

¹⁴ 216/2019 Foru Dekretua, irailaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura arautzen duena.



batzuetan legezko interesa ordaindu beharretik salbuesteko eta NOPFLren 82 ter.3 artikuluan xedatutakoarekin kontraesanik ez izateko¹⁵.

2.4. Parquenasaren kontabilitate egoera eta zenbatekoa Sodenaren urteko kontuetan

Sodenaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuen gaineko auditoria egin da¹⁶ 2023ko apirilaren 20an. Honako taula hauetan dagoen informazioa urteko kontuen oroitidazkiko kasuan kasuko ataletik hartu da hitzez hitz:

7.2 atala. Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioen deskribapena

<i>Parque de la Naturaleza, S.A.</i>	
Zuzenekoa	% 45
Zeharkakoa	% 0
Kapitala	1.800.000
Erreserbak	-55.120.162
Ondare garbiko beste partida batzuk	-
Ustiapena	-2.116.938
Jarduera jarraituak	-2.210.198
Jarduera etenak	-
Guztira	-2.210.198
Ondare garbia, guztira	-55.530.360
Kostua	4.050.000
Ekitaldiko narriadura	.
Narriadura metatua	-4.050.000
Jasotako dibidenduak	-

¹⁵ Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan Nafarroako Foru Komunitateak formalizatutako azken zorpetze eragiketako interes tasaren % 50 baino interes tasa txikiagoa duen mailegu baten onuradun.

¹⁶ Sodenaren urteko kontuak auditoretzako enpresa pribatu batzuek auditatzen dituzte.



11.2 atala. Bermeak, abalak eta pasibo kontingenteak

	2022	2021
Parque de la Naturaleza de Navarra SA	180.000	180.000

8.2.1 atala. Kredituak taldeko enpresei eta enpresa elkartuei

Kredituak	2022
Emandako zenbatekoa	78.104.448
Interesak	187.706
Narriadura	-55.780.244
Guztira	22.511.910

Oharra (1) 2022ko abenduaren 31n, 56.795.000 euro ziren partaidetza-maileguak".

Informazio horri dagokionez, alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Sodenaren urteko kontuetan, gaur egun erabat narriatuta dago kapitalean egindako 4,05 milioiko ekarpena. Izan ere, 2006ko ekitaldian iritsi zen erabateko narriadurara, taula honetan ikus daitekeenez:

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Partaidetzaren kontabilitate-narriadura	0,00	(0,02)	(0,21)	(1,37)	(3,17)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)	(4,05)


- 2022ko abenduaren 31n, emandako maileguen guztizko zenbatekoa 78,1 milioi da, eta horren barruan honako hauek bereizi behar dira:

a) Mailegu narriatuak, guztira 55,78 milioi, Sodenak hutsegintzat jotzen dituenak urtero Nafarroako Gobernuari baimena eskatzen dionean maileguak emateko. Urteko narriadura Parquenasaren urteko galeren bilakaeraren arabera zenbatesten eta kontabilizatzen da:

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ekitaldiko emaitza	0,00	(0,04)	(0,44)	(2,58)	(4,00)	(4,46)	(4,38)	(4,17)	(4,14)	(4,30)	(4,04)	(4,05)	(3,80)	(2,86)	(2,93)	(2,50)	(2,54)	2,44	2,69	(3,34)	(2,00)	(2,21)
Maileguen urteko narriadura	0,00	0,00	0,00	0,00	(4,04)	(2,38)	(4,01)	(3,83)	(2,75)	(2,82)	(4,35)	(4,03)	(4,00)	(2,68)	(2,91)	(2,71)	(2,49)	2,36	2,85	(3,35)	(1,99)	(2,22)
Maileguen narriadura metatua	0,00	0,00	0,00	0,00	(4,04)	(6,42)	(10,43)	(14,26)	(17,01)	(19,83)	(24,18)	(28,21)	32,21	(34,90)	(37,81)	40,52	43,01	5,37	8,22	11,57	(53,56)	55,78



Aipatutako magnitudeen bilakaera eta haien arteko erlazioa grafiko honetan agertzen dira:




b) Partaidetza-maileguak

Gehigarri honen 2.3.2 atalean esan bezala, Parquenasak emaitza negatiboak izan ditu sortu zenetik, eta funts propio negatiboak izan ditu bere jardueraren hirugarren ekitalditik aurrera. Horrek merkataritza sozietate gisa desegitea ekarri beharko zukeen. Partaidetza-maileguen ezaugarriek (ondare garbitzat konputatzen dira) Parquenasaren finantza egoeraren saneamendua ahalbidetu dute soilik kontabilitate-ondorioetarako. Hala, sozietatea galerengatik desegitea saihesteko edo atzeratzeko tresna bihurtu dira. Horregatik, emandako maileguen zati bat partaidetza-mailegu bilakatzen da urtero. Partaidetza-mailegu horiek epealdi aztertuan izandako bilakaeraren berri ematen da honako taula honetan:

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Parquenasaren ondare garbia	9,00	8,96	8,53	5,95	1,95	(2,51)	(6,88)	(11,69)	(15,83)	(20,13)	(24,17)	(28,22)	(32,02)	(34,88)	(37,80)	(40,31)	(42,85)	(45,29)	(47,98)	(51,32)	(53,32)	(55,53)
Partaidetza-maileguen urteko zenbatekoa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	4,30	4,40	4,20	3,85	4,30	4,33	4,05	3,75	3,00	2,90	2,50	2,50	2,45	2,70	3,35	2,00	2,22
Partaidetza-maileguen zenbateko metatua	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	4,30	8,70	12,90	16,75	21,05	25,38	29,43	33,18	36,18	39,08	41,58	44,08	46,53	49,23	52,58	54,58	56,80

Partaidetza-mailegu bilakatu den maileguen zatiak, urtez urte, beti erlazio nahiko antzekoa izan du narriatutako mailegutzat jo den zenbatekoarekin, taula honetan ikus daitekeenez:

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Maileguen urteko narriadura	0,00	0,00	0,00	0,00	(4,04)	(2,38)	(4,01)	(3,83)	(2,75)	(2,82)	(4,35)	(4,03)	(4,00)	(2,68)	(2,91)	(2,71)	(2,49)	(2,36)	(2,85)	(3,35)	(1,99)	(2,22)
Partaidetza-maileguaren urteko zenbatekoa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	4,30	4,40	4,20	3,85	4,30	4,33	4,05	3,75	3,00	2,90	2,50	2,50	2,45	2,70	3,35	2,00	2,22



Beheko taulan azaltzen da zein zen partaidetza-maileguen egoera, merkataritza-ondorioetarako, Parquenasaren ondare-egoeran, 2022ko abenduaren 31n:

Parque de la Naturaleza, S.A.	
Kapitala	1.800.000
Erreserbak (galera metatuak)	-55.120.162
Ekitaldiko emaitzak	-2.210.198
Ondare garbia	-55.530.360
Partaidetza-maileguak	56.795.000
Ondare garbi konputagarria, partaidetza-maileguak egonda	1.264.640

Horren arabera, ondare garbi konputagarria, kontabilitate-ondorioetarako, ez da 55,53 milioiz negatiboa, 1,26 milioiz positiboa baino. Era horretara saihesten dira sozietatearen nahitaezko desegitea eta geroko likidazioa.

Kontuan izan behar da, ordea, partaidetza-maileguei buruzko merkataritza araudian haiek ondare garbitzat konputatzean enpresei aukera eman nahi zaiela desegitea atzeratzeko eta suspertu ahal izateko, baina ez egoera hori mugarik gabe luzatzeko. Parquenasak 18 urte daramatza egoera horretan.

Urtero ustiapen emaitza negatiboak izan ahala handitu egiten zaizkio galera metatuak. Horregatik, arestian azaldutako egoera gertatu arren, partaidetza-maileguetan, edozein mailegutuan bezala, hartzaileak mailegua itzuli egin behar dio emaileari; hori nekez gerta daiteke Parquenasaren kasuan.

Parquenasak bere gain hartutako zorra ezabatzeko edo gutxitzeko modu bakarra da maileguen amortizazioa kapitalizazioaren bitartez aurreratzea, alegia, zorra kapital sozial bihurtzea. Era horretara mailegu-emailea kreditu positiotik sozietate bateko kapitaleko partaide posizioa pasatzen da, aurretik sozietatearen kapitala handituta; eragiketa horretan Sodenak mugak izan ditu, gehigarri honetan beheragoko 2.6.2 atalean zehazten dugun moduan.

c) Gainerako 22,51 milioiak ez dira ageri balorazioa zuzendu behar zaien kreditutzat Sodenaren urteko kontuetan; hots, balio galerarik gabeko kreditutzat jotzen dira, eta horrek esan nahi du berreskuragarritzat jotzen direla.



Hori dela-eta, gure iritziz garrantzia duten eta aztertutako espedienteetatik ondorioztatzen diren bi kontu nabarmentzen ditugu:

- Urtero Nafarroako Gobernuari baimena eskatzen dionean maileguak emateko, Sodenak osorik huts egindako mailegutzat jotzen ditu; hori ez da kontuan hartu partaidetzakotzat jo ez diren kredituen balioa zenbatestean, kontabilitateko ekitaldiaren itxieran.

- Kontu-hartzailletza Nagusiaren nahitaezko txosten batzuetan (2016/2019 Foru Dekretuaren arabera), emandako finantzaketa berreskuratu ezin delako zantzu argiak jaso dira. Zehazki, Kontu-hartzailletza Nagusiaren 2020ko maiatzaren 12ko txostenean¹⁷ hau adierazten da: “... Horregatik, ez baitago bideragarritasun planik entitate printzipala eta interesak itzultzeko gai izanzen dela nahiko ziur espero izateko aukera ematen duenik, eta entitateari sortu zenetik eman zaizkion maileguak itzuli ez direnez, ...”. Halaber, Kontu-hartzailletza Nagusiaren 2022ko martxoaren 8ko txostenean¹⁸ honako hau adierazten da: “..., edo oso nekez gerta daitekeen susperraldi baten aukera iradokiko balitz”.

Uste dugu narriatu gabeko 22,51 milioiko kreditu horiei balorazioaren zuzenketa egin behar zitzaiela kontabilitatean, berreskuratu ahalko ote diren zalantzan jartzeko zantzu objektiboak daudelako.

2.5 Bazkideen egoera Sodenaren ekarpen finantzarioen aurrean

Gai honen inguruan, honako hauek hartu behar dira aintzat:

- Lehendabizi, azpimarratu behar dugu Sodenak Parquenasari egin dizkion ekarpen finantzarioak mailegu finantzarioak izan direla, eta 2005az geroztik Sodenaren dela sozietateko bazkide mailegu-emaile bakarra.

- Bigarrenik, Sodenak eta Parquenasak 2005eko urtarrilaren 31n eta abenduaren 30ean sinatutako finantzaketa kontratuetan dago egoera horren abiapuntua. Kontratu horiek indarrean daude, sinatzaileak behartzen dituzte, eta baliozkoak dira merkataritza legeriaren arabera.

Ondorioz, gure iritziz, ez dago inolako lege arrazoirik gainerako bazkideei – bai hasierako bazkideei bai gero horien partaidetzak erosi zituztenei – maileguz emandako diru kopuruak erreklamatzeko oinarria eman dezakeenik, sozietate anonimo batean bazkideek ez dutelako pertsonalki erantzuten sozietatearen zorrez. Horrela adierazten du 1. artikuluan uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duenak.

¹⁷ Fiskalizazio txostena, Sodenaren sozietate publikoak Parquenasari sozietateari 2020an gehienez 5,9 milioiko mailegua eman diezaion baimena ematen duen Gobernu Erabaki proposamenari buruzkoa.

¹⁸ Fiskalizazio txostena, “SODENA” sozietate publikoak 2021eko ekitaldian, orotara, gehienez 6.300.000 euroko maileguak eman ditzan eta Parque de la Naturaleza de Navarra SARI gehienez 1.700.000 euroko mailegua eman diezaion baimena ematen duen Gobernu Erabakiari buruzkoa.



2.6 Kredituen kapitalizazioa, eta Parquenasa sozietate publiko bilakatzeko ekarriko lituzkeen ondorioak.

2.6.1 Kredituen kapitalizazioa Sodenaren eta Parquenasaren arteko 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratuaren aurrean

Gaur egun indarrean dirauen kontratu horretan, kontuan hartu behar da bosgarren klausularen edukia. Hona ekarri dugu hitzez hitz:

“Kontratu honen indarraldiko edozein unetan SODENAK, egokitzen jotzen badu, osorik edo partez:

- a) Partaidetza-mailegu bilakatu ahalko ditu sozietatearekiko kredituak.
- b) Kredituak kapitalizatu ahalko ditu, honako baldintza hauek betez gero:
 - 2005eko urtarrileko finantzaketa kontratuan aurreikusten den kapital-murrizketa egin izana¹⁹.
 - Sodenak kapitalizazio horren ondoren sozietatean gehiengorik ez eskuratzea.
 - Sozietatearen Batzar Orokorrak kapitalizazioa onestea, legean eta estatutuetan ezarritako izapideak beteta”.

Hori dela-eta, azpimarratu behar dugu ezen, klausula hori indarrean dagoenez, Sodenaren urteko kontuetan ageri diren 56,80 milioiko partaidetza-maileguak ezin izan direla kapitalizatu, ez osorik, ezta kapital sozialean gehiengo osoa lortzeko adina ere (% 50etik gora), Sodenak muga hauek izan dituelako:

a) Ezin zuen sozietatearen kapitalaren % 50 gainditu. Beraz, partaidetza-maileguak kapitalizatu ahal zituen kapital sozialaren erdia eskuratzearaino. Zehazki 90.000 euro kapitalizatu ahal zituen, lehendik % 45eko partaidetza baitzuen. Gainerakoa, 78,20 milioiraino, berreskurazina litzateke, Parquenasak itzulketari dagokionez duen egoera finantzarioaren ondorioz.

Kapital soziala	Sodena: % 45	Gehieneko kapitalizazioa: % 5	Sodenaren partaidetza: % 50
1.800.000	810.000	90.000	900.000

Parquenasaren zor osoa	Kapitalizazio bidezko amortizazio aurreratuen zenbatekoa	Parquenasaren zor ordaindu gabea
78.292.154	90.000	78.202.154

b) Batzar Orokorraren onespena behar zuen.

Bestalde, gehigarri honen 2.2.1 atalean adierazi dugun bezala, Nafarroako Gobernuaren onespena behar zen, Nafarroaren Garapen Sozietatea sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen arabera, Sodenak Parquenasaren kapital sozialaren % 45 baino gehiago eskuratu ahal zezan.

¹⁹ Lehenengo kapital-murrizketa 2005eko ekainean egin zen.



Sodena izanda Sendavivaren jarduerari eusteko finantzaketa eskaini duen bazkide bakarra, ez da zentzuzkoa hura kapital sozialaren gehiengoaren jabe ez izatea. Egoera ez da aldatu Nicdori partaidetzak saldu ondoren, partaidetza publikoak oraindik ere gutxiengoa baitu Parquenasaren kapital sozialean.

Gutxiengo hori gorabehera, Parquenasan partaide izanda hartutako arriskuak eta Parquenasaren ustiapen- eta finantza-erabakietan parte hartzeko ahalmena direla medio, 1159/2010 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua arabera²⁰, sozietatearen gaineko kontrolari buruzko lege-presuntzioa sortzen da, eta, horrenbestez, Parquenasaren kontuak NEKPren urteko kontu bateratuetan bateratu behar dira.

Gure iritziz, kontabilitatearen ikuspegitik lege-presuntzio horrek, funtsean, agerian jartzen du sozietatearen gaineko egitatezko kontrola dagoela, eta pentsa liteke erabateko kontrola dela; izan ere, finantzaketa publikoa etenen balitz sozietatea desegin eginen litzateke. Arau esparru ezberdinek (kontabilitate arlokoa eta juridiko-administratiboa) bat egin izanak, muina formari nagusitzen zaiola aintzat hartuta, ez du galarazten egoera bat ikustea non egitatezko kontrola bazkide publikoaren eskuetan dagoen, nahiz eta % 45eko partaidetza izan, eta legezko kontrola bazkide pribatuen eskuetan, kapitalaren % 55aren jabe baitira. Egoera guztiz kontraesanezkoa da eta zuzendu egin behar da, gure iritziz.

2.6.2. Parquenas sozietate publiko bilakatzearen ondorioak

Sozietate publikoak foru sektore publikoaren barruan daudela diote Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak. Bi foru legeok Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea igortzen dute sozietate publikoaren definizioa ikusteko.

Foru lege horren arabera, “*Nafarroako Foru Komunitateko eta haren menpeko erakunde publikoetako sozietate publikoak dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo/eta haren menpeko erakunde autonomoen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengo osoa osatzen badu.*”

Orobat dira sozietate publikoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren menpeko erakunde publikoek administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna dutenak; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa dutenak”.

Beraz, sozietate publikoak hiru irizpide hauetakoren batean oinarrituta dira halakoak:

²⁰ 1159/2010 Errege Dekretua, irailaren 17koa, urteko kontu bateratuak egiteko arauak onesten dituen.



a) Kapital sozialaren kontrola: kapital sozialean gehiengo osoa izatea (% 50etik gora) zuzenean edo zeharka.

b) Kontrol organikoa: sozietatearen gobernu- edo zuzendaritza-organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea.

c) Funtzionamenduaren kontrola: sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botorik gehienak izatea.

Sodenak Parquenasan duen partaidetzak ez du baldintza horietako bat ere betetzen. Beraz, Parquenasan ez da sozietate publikoa.


Sozietatearen administratzaile bakarra lehenago Sodenan eta orain Nicdo izatea Parquenasaren Batzar Orokorra onetsitako egoera da, eta hiru bazkide pribatu dute gehiengo organo horretan. Ez Sodenak ez Nicdok ez dute ahalmenik izan gobernu- edo zuzendaritza-organoetako kide gehienak izendatzeko.

Laburbilduz, Parquenasak merkataritza sozietate pribatua izaten jarraitzen du. Gai horri buruz, kontuan izanda sozietateko akziodun publikoek estrategikotzat jotzen dutela sozietateak kudeatzen duen jardura eta bere gain hartu dituzten finantzaketa eta arrisku osoa, ez da zentzuzkoa kudeaketa sozietate pribatu baten esku uztea. Ganbera honen iritziz, ez da uste izatekoa bere erabaki finantzarioak inbertsioaren errentagarritasunean oinarritzen dituen inbertsiogile pribatu batek sozietateari finantzaketa eskainiko dionik aldian-aldian, berreskuratzeko itxaropenik gabe.

Ez da txosten honen helburua baloratzea Sodenak 2005ean estrategikoa iritzi zion erabaki hori, oraindik ere merkataritza sozietate pribatu bat finantzatu beharra sortzen ari dena. Hala ere, Ganbera honen iritziz, sektore pribatuarekin lan-kidetzan bideratzen diren proiektuek balizko arriskuen eta mozkinen banaketa orekatua aurreikusi behar dute, ez dadin izan sektore publikoa arrisku guztiak bere gain hartzen dituenak.

Parquenasan sozietate publiko bihurtu eta Nafarroako Foru Komunitateko enpresen sektore publikoan sartzea erabakiko balitz, sozietate horrek zuzenbide publikoko zenbait arau bete beharko lituzke. Horien artean aipatzekoak dira honako hauek:

- 19/1996 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 14/2007 Foru Legea, apirilaren 14koa, Nafarroako ondareari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoari buruzkoa.



- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko urteroko legeetan langileei buruz xedatzen dena.



Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

M. Eugenia Lecumberri Alli andrea, adin nagusikoa, **Nafarroaren Garapen Sozietatea SA**ren (aurrerantzean, **Sodena**) izenean eta hura ordezkatzuz (legezko helbidea: Iruña, 31003 Nafarroa, Karlos III.a etorbidea 36, 1. solairua, eskuinaldea; IFZ: B/71/069868) eta **Francisco Fernández Nistal jauna**, adin nagusikoa, **Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SL**ren (aurrerantzean, **NEKP**) izenean eta hura ordezkatzuz (legezko helbidea: Iruña, 31001 Nafarroa, Pablo Sarasate pasealekua 38, 2. solairua, eskuinaldea; IFZ: B/71/018360) Kontuen Ganbera horren aurrera agertzen dira, eta bidezko den moduan hau **DIOTE**:

I.- 2023ko urriaren 23an Sodenari eta NEKPri jakinarazi zaie Kontuen Ganberako lehendakariak egun berean emandako 2023-0158 Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita “Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak” izeneko behin-behineko fiskalizazio txostena (aurrerantzean, **behin-behineko txostena**); jakinarazi ere, “*txostena helarazi behar zaiolako fiskalizatutako erakundeari, azter dezan eta alegazioak egin ahal ditzan urriaren 31ra arte*”.

II.- Eman diguten ordezkaritza baliatuta, ezarritako epearen barruan eta arestian azaldutako ondorioetarako, idazki honen bitartez alegazio hauek aurkezten dizkiogu Kontuen Ganberari:

ALEGAZIOAK

ATARIKOA.-

Argibide huts moduan adierazten da idazki honetan “**Parquenasasa** eta/edo **Sozietatea**” terminoak erabiliko direla Parque de la Naturaleza de Navarra SA merkataritza sozietatea aipatzeko eta “**Sendaviva**” terminoa, berriz, Arguedasko udal mugartean dagoen natura parkea aipatzeko.

Gainera, idazki honetan azaltzen den guztia dela-eta, proposatuko da, betiere Kontuen Ganberaren iritziz hobearren menpe, behin-behineko txostenean dauden aipamen batzuk alda daitezela Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioei buruz emanen den behin betiko txostenean.

Horretarako, idazki honetan [urdinez eta azpimarratuta](#) [GEHITU] agertzen dira txertatzeko iradokitzen diren testu proposamenak, eta [berdez eta azpimarratuta](#), berriz, kentzeko iradokitzen direnak [KENDU].



LEHENENGOA.- SODENAK PARQUENASARI EMANDAKO MAILEGUEN KONTABILIZAZIOA

Behin-behineko txostenaren III. atalean (“Konklusioak eta gomendioak”), B) puntuan, 6. eta 7. orrialdeetan, Sodenak Parquenasari emandako maileguen zenbatekoa eta Sodenan duten kontabilitate-egoera azaltzen dira, eta adierazten da haien kontabilitateko balioa 22,51M eurokoa dela guztira (behin kenduta zenbateko narriatuak), Sodenaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuetatik ondorioztatzen denez; gainera, haien kontabilizazioari buruzko ohar batzuk daude.

Nahiz eta behin-behineko txostenaren 9. orrialdean ez den berariazko gomendiorik jarri Sodenak Parquenasari emandako maileguak kontabilizatzeko irizpideari buruz, txostenean zehar zenbait adierazpen daude mailegu horien balorazioaren eta kontabilitateko tratamenduaren gainean. Hori dela-eta, alegazio hau egiten da.


Hala bada, behin-behineko txostenaren 2. gehigarrian [2.4.c) puntua, 27. orrialdea eta hurrengoak] xehetasunez aztertzen dira Parquenasarentzako maileguen zenbatekoa eta kontabilitateko isla Sodenaren kontuetan, 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldian. Hau adierazten da 31. orrialdean: “(...) 22,51 milioi ez dira ageri balorazioa zuzendu behar zaien kreditutzat Sodenaren urteko kontuetan; hots, balio galerarik gabeko kreditutzat jotzen dira, eta horrek esan nahi du berreskuragarritzat jotzen direla”.

Eta Kontu-hartzailera Nagusiaren nahitaezko txosten batzuetara igorri ondoren (Sodenak ezin izan ditu eskuratu, 2022ko martxoaren 8koa izan ezik), hau baieztatzen da berariaz: “Uste dugu narriatu gabeko 22,51 milioiko kreditu horiei balorazioaren zuzenketa egin behar zitzaiela kontabilitatean, berreskuratu ahalko ote diren zalantzan jartzeko zantzu objektiboak daudelako”.

Adierazpen horiei erantzunez, alegazio hauek utzi nahi dira jasorik:

(a).- Lehenik, Parquenasak, kontabilitateko araudiari jarraikiz, “eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktibo”tzat jo behar ditu bere aktibo materialak, martxoaren 25eko EHA/733/2010 Aginduko laugarren arauan ezarritakoaren babesean (Zenbait egoeratan jarduten duten kontabilitate alderdiak onesten dituen Agindua), aktibo horien balioa narriatuta dagoen ala ez ebaluatzeko irizpideak direla-eta.

(b).- Ezin da ukatu Parquenasak sozietate pribatua dela, baina Parquenasak uste du arau horiek nahitaez aplikatu behar dituela bere aktiboen narriaduraren kontabilitate-balorazioan, bera autonomia erkidegoko sektore publikoko entitatea delako kontabilitate-ondorioetarako. Izan ere, (i) Sodena/NICDO ⁽¹⁾ Sozietatearen administratzaile bakarrak izan dira eta haren kudeaketa gainbegiratu dute, hau da, haren gaineko kontrola izan dute; (ii) Sodenak, eta orain Nafarroako Gobernuak, beren gain hartu dute arrisku finantzario osoa 2005az geroztik; (iii) halaber kontuan hartu behar da akziodunen arteko ituna, data horre-



takoa; eta (iv) gainera, NEKPren bitartez, eta berriz ere kontabilitate-ondorioetarako, Sozietatea autonomia erkidegoko sektore publikoko parte da. Hain zuzen ere, horrela jaso izan da NEKPren urteko kontu bateratuetan, zehatzago 2022ko eta 2021eko ekitaldietakoetan:

“Alde horretatik, berariaz menpeko sozietatetzat jo da Parque de la Naturaleza SA, nahiz eta taldeak sozietatean duen benetako partaidetza % 45ekoa izan 2022ko eta 2021eko ekitaldien amaieran, eta haren gaineko kontrola dagoela uste izan da taldeak entitatearen arriskueta eta emaitzetan duen partaidetzaren arabera”.

⁽¹⁾ Biak aritu baitira eta/edo ari baitira Parquenasaren administratzaile bakarraren

karguan. Bereziki, Sodena, 2005eko ekainaren 15ean izendatu zutenetik 2023ko otsailaren 2an uko egin zuen arte; eta NICDO, egun horretan (2023ko otsailaren 2an) izendatu zutenetik eta orain arte.

(c).- EHA/733/2010 Aginduko lehenengo arauak honela definitzen ditu fluxurik sortzen ez duten aktiboak:

“e) Eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktiboak: ibilgetu materialeko eta uki-ezineko osagaiak eta higiezineta inbertsioak, merkataritzako etekina sortzeaz bestelako helburua dutenak; adibidez, aktibo horiek kolektibitatearen onurarako sortzen dituzten fluxu ekonomiko sozialak, alegia, haien onura soziala edo zerbitzu ahalmena”.

(d).- Transkribatutako kontabilitate arauaren ondorioetarako, azpimarratu behar da Sendavivaren eragin sozioekonomikoari buruzko urteroko azterketek agerian jartzen dutela proiektuak arlo sozioekonomikoan duen eraginaren balorazioa; azterketa horiek 2007tik egiten dituzte aholkularitza enpresa baimenduek, eta geroago berriz aipatuko dira. Txosten horiek gizartearentzat errenta eta enplegu gisa sortzen diren onura ekonomikoak baloratzen dituzte. Hori bat dator transkribatutako arauan eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktiboei buruz ematen den definizioarekin.

(e).- Hortaz, bere aktiboen balizko narriadura baloratzeko garaian, Parquenasak ez du irizpide komertzialen arabera aztertzen balizko balio galera, aktiboek sortzen duten zerbitzu ahalmenaren arabera baizik. Eta, EHA/733/2010 Aginduak adierazten duen bezala, narriadura zantzurik baldin badago, balio berreskuragarria da erabilera-balioaren eta zentzuzko balioaren artetik handiena. Erabilera-balioa da bere zerbitzu ahalmenari eusten dion aktiboaren egungo balioa, eta balioa galdutako berrezarpen kostuaren erreferentziaren bidez zehazten da. Horrelaxe ari dira baloratzen aktiboak Parquenasan.

(f).- Aipatu kontabilitate-arauaren aplikazioa onartu eta berretsi izan dute Parquenasak 2001ean sortu zenetik haren kontuen auditoriak egin dituzten enpresek. Aintzat hartu di-



tuzte EHA/733/2010 Aginduan adierazitako irizpideak, Parquenasak aktibo horien balio-narriadurarik ba ote dagoen ebaluatzeko garaian, eta haien iritzia inoiz ez da salbuespen batekin kualifikatu.

(g).- Sodenan kontabilizatutako maileguen balio berreskuragarriari dagokionez, Sodenak oinarri hartu du Parquenasak bere aktibo materialei ematen dien kontabilitate-tratamendua, eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktibotzat jotzen baititu, Parquenasaren urteko kontuetan bertan adierazten den moduan.

(h).- Horregatik, aurreko guztia kontuan hartuta, Sodenak bere narriadura-azterketa egitean aintzat hartzen du Parquenasaren aktibo horien balio berreskuragarria, bai eta Parquenasaren beste aktibo eta pasibo batzuek (Sodenak emandako maileguen bestelakoek) duten kontabilitate-balioa ere, kontuan hartuta mailegu horien kontabilitate-balio garbia bat datorrela zenbatetsitako balio berreskuragarriarekin, eta, beraz, jada egindakoez gain beste balorazio-zuzenketarik egin gabe. Balio hori haren urteko kontuetan islatuta dago urtez urte, eta hartan oinarrituta egin dira balorazio-zuzenketak Sodenan.

(i).- Irizpide hori zuzena da eta halakotzat jo dute entzute handiko hiru auditoretza enpresak. Horiek Sodenaren eta NEKPren urteko kontuak egiaztatu izan dituzte Parquenasari lehenengoz finantzaketa eman zitzaionetik (ez dute inolako salbuespenik azaldu Sodenaren eta NEKPren urteko kontuei buruzko auditoretza txostenetan hark balorazio irizpide hori aplikatzen hasi zenez geroztik).

(j).- Azkenik, aipatu behar da Kontuen Ganberak 2014ko urriaren 13an emandako txostena: "Nafarroaren Garapen Sozietateak 2002-2013 urte bitartean enpresa partaidetuetan eginitako inbertsio finantzarioei buruzko fiskalizazio txostena". Bertan, besteak beste, Sodenak Parquenasari egindako ekarpenak aztertu zituen, eta hau adierazi zuen 12. orrialdean: "*Sodenaren 2002tik 2013ra bitarteko urteko kontuek beren alderdi nabarmen guztietan islatzen dituzte enpresen kapitalean parte hartzeko finantza-eragiketak, bai eta sozietate publikoak parte hartutako enpresei aldi horretan maileguak emateko jarduketak ere; azkenik, eragiketa horiei buruz kudeaketa-txostenean jasotako informazioa bat dator ekitaldi bakoitzeko urteko kontuetan islatutakoarekin*".

Hala bada, Kontuen Ganberak, behin-behineko txostenean (9. orrialdea) jasotako gomen-dioen ildotik, 2014ko txosten horretan eta Parquenasari zegokionez, ez zuen ezertxo ere adierazi Sodenaren urteko kontuetan balorazio-zuzenketa egitearen komenigarritasunari edo beharrari buruz.



Horrenbestez, alegazio honetan honaino emandako azalpenetan oinarrituta, begi bistan dago Sodenak Parquenasari emandako maileguen balorazioa zuzen egin dela eta zorrotz aplikatu dela kontabilitateko araudia (EHA/733/2010 Agindua, gorago aipatua). Araudi hori nahitaez aplikatu behar da, arau esparru ezberdinak egon arren (kontabilitate arlokoak eta juridiko-administratiboak) eta biak batera gertatu arren, behin-behineko txostenak berak 33. orrialdean dioen bezala.

Sodenak Nafarroako Gobernuan izapidetu dituen baimen-eskaeretan maileguak "hutsegin"tzat jotzeari dagokionez, horrela kalifikatu dira berreskuratzen zailak izateagatik. Baina, lehen azpimarratu den bezala, maileguen narriadura kalkulatzeko irizpidea kontabilitateko araudiak ematen du, eta ez mailegu horiek berreskuragarritzat edo berreskurazintzat jotzen dituen ikuspegi komertzialak.

Hala bada, ondorioztatu behar da, kontabilitate arloko araudiaren autonomian oinarrituta, mailegu horiek 22,51M euroko kontabilitate balioa dutela eta zuzen kontabilizatuta daudela. Halaxe egiaztatu dute Sodenaren, Parquenasaren eta NEKPren kontuak auditatu dituzten enpresek, lehenago adierazi bezala.

Azaldutakoa ikusita, Kontuen Ganberaren iritzi hobeari men eginez, proposatzen da behin-behineko txosteneko puntu hauek alda daitezela gero emanen den behin betiko txostenean:

- "III. Konklusioak eta gomendioak" atalean, B puntuan (7. orrialdea): "● Maileguak emateko urteroko baimen-eskaeretan, Sodenak adierazi izan du mailegu horiek kobraezin gisa hornitzen direla osorik, [GEHITU] [alde batera utzi gabe haiek kontabilizatzeko irizpideak](#). [KENDU] [Kontu horri dagokionez, atentziora ematen du oraindik ageri direla 22,51 milioiko mailegu berreskuragarriak, nahiz eta eskaeretan kobraezintzat jotzen ziren, eta ez dela bideragarritasun planik egin haiek itzultzeko, eta Parquenasak berak zer nolako finantza egoera duen](#)".
- 28. orrialdean, a) atalean, "a) Mailegu narriatuak, guztira 55,78 milioi, Sodenak hutsegin-tzat jotzen dituenak urtero Nafarroako Gobernuari baimena eskatzen dionean maileguak emateko, [GEHITU] [alde batera utzi gabe haiek kontabilizatzeko irizpideak](#). Urteko narriadura Parquenasaren urteko galeren bilakaeraren arabera zenbatesten eta kontabilizatzen da (...)".
- 31. orrialdean, c) atalean, 1. paragrafoan: "c) Gainerako 22,51 milioiak [KENDU] [ez dira ageri](#) Sodenaren urteko kontuetan ageri dira balorazioa zuzendu behar [GEHITU] [ez zaien kreditutzat, \[KENDU\] \[hots, balio galerarik gabeko kreditutzat jotzen dira, eta horrek esan nahi du aintzat hartu behar direla, \\[GEHITU\\] \\[albo batera utzita mailegu berreskuragarritzat jotzen diren ala ez\\]\\(#\\) \\(...\\)"\]\(#\)](#).



- Eta 31. orrialdean bertan, c) atalean, 3. paragrafoan: “● *Urtero Nafarroako Gobernuari baimena eskatzen dionean maileguak emateko, Sodenak osorik huts egindako mailegutzat jotzen ditu, [GEHITU] alboratu gabe haiek kontabilizatzeko irizpideak; [KENDU] hori ez da kontuan hartu partaidetzazkotzat jo ez diren kredituen balioa zenbatetean, kontabilitateko ekitaldiaren itxieran”.*

BIGARRENA.- MAILEGUAK

Behin-behineko txostenean hainbat aldiz aipatzen dira Sodenak Parquenasari emandako partaidetza-maileguak (geroago aipamen horietaz arituko gara), eta hau adierazten da: (i) alde batetik, mailegu horiek zenbait “kontabilitate-ondorio” ahalbidetu dituztela Sozietatean, aplikatzekoa zaien araudi berariazkoarekin bat; eta (ii) bestetik, haien iraunaldiari buruzko iruzkinak.

2.1.- Lehenengo gaia dela-eta, Jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeko presako neurriei buruzko uztailaren 7ko 7/1996 Errege Lege-dekretuaren 20.d) artikuluari jarraikiz, esan behar da partaidetza-maileguak ondare garbitzat jotzen direla merkataritza legeriak aurreikusten dituen sozietateen kapital-murrizketei eta likidazioei dagokienez (bereziki halakotzat jotzen dira Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 363. artikuluan).

Alegia, partaidetza-maileguen ondorioak ez dira kontabilitatekoak (hain zuzen ere, ez dute eraginik kontabilitatean), merkataritzako ondorio hutsak baizik. Sozietateek legezko desegite-arrazoietan erortzea saihesten dute haien bitartez. Hala aitortu du Auzitegi Gorenak berak [guztien eredu, 2021eko martxoaren 30eko 1255. zenbakiko epaia (ECLI:ES:TS:2021:1255)].

Horregatik iradokitzen da, alegazio honetan honaino azaldutako guztia aintzat hartuz, gero emanen den behin betiko txostenean, behean zerrendatzen diren orrialdeetan, “kontabilitate-ondorioetarako” dioen lekuetan “merkataritza-ondorioetarako” jartzea, paragrafoak osatuz eta/edo aldatuz. Zehazki: 8. orrialdeko 2. paragrafoan, 22. orrialdeko 2. paragrafoan, 29. orrialdeko 2. paragrafoan eta 30. orrialdeko 2. paragrafoan.

2.2.- Partaidetza-maileguen iraunaldiari dagokionez, adierazi behar dugu mailegu horiek berariaz arautzen dituzten arauetan ez dela ageri maileguok iraunaldi jakina izan behar dutenik. Izan ere, ohikoa da partaidetza-maileguak epe luzeko finantzaketa tresna gisa erabiltzea alderdi maileguemailearen konpromisoaren arabera.

Ez 7/1996 Errege Lege-dekretuak ez Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ez dute biderik ematen pentsatzeko partaidetza-maileguen bereizgarri bat denik behin-behineko txostenean haien epe jakinari buruz esandakoa.



Beste alde batetik, partaidetza-maileguak aldian behin berritzeak (kasu honetan urtero, gehigarrien bitartez), hain zuzen ere esan nahi du badituztela epeak eta ez direla mugagabeak. Horregatik, alegazio honetan honaino azaldutakoa aintzat hartuz, gero emanen den behin betiko txostenean maileguen epe mugagabeari buruzko aipamenak ken daitezela iradokitzen da, eta hurrengo paragrafoak osa eta/edo alda daitezela. Zehazki:

- 8. orrialdean, 2. paragrafoan: *“Kontuan izan behar da partaidetza-maileguei buruzko merkataritza araudi horretan haiek ondare garbitzat konputatzean enpresei aukera eman nahi zaiela nahitaezko desegitea atzeratzeko eta suspertu ahal izateko, [KENDU] [baina ez egoera hori mugarik gabe luzatzeko](#)–Parquenasak 18 urte daramatza egoera horretan”*.
- Eta 30. orrialdean, 3. paragrafoan: *“(…) Kontuan izan behar da, ordea, partaidetza-maileguei buruzko merkataritza araudian haiek ondare garbitzat konputatzean enpresei aukera eman nahi zaiela desegitea atzeratzeko eta suspertu ahal izateko, [KENDU] [baina ez egoera hori mugarik gabe luzatzeko](#). Parquenasak 18 urte daramatza egoera horretan”*.

2.3.- Oro har, mailegu guztiei dagokienez, behin-behineko txostenak (2.2.1 gehigarria, 15. orrialdea) aitortzen du Sodenak egindako inbertsioak Nafarroako Gobernuaren ekintza estrategiko bati erantzuten diola, honako hau adieraziz: *“Arguedasko udalerrian naturaren parke bat (Sendaviva) egiteko proiektua Nafarroako Gobernuak hasi eta sustatu zuen, Nafarroako turismo sektorea indartze aldera”*.

Beraz, Sodena Nafarroako Gobernuaren bitartekoa izan da parke hori sustatzeko eta bultzatzeko. Gaur egun Nafarroan finkatuta dagoen turismo eta aisia eskaintza bat da parke hori. Urteetan zehar eragin sozioekonomiko garrantzitsua izan du, hazten joan da eta Parquenasari emandako laguntza finantzarioa justifikatu du.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago aisia eta turismo sektoreetan espezializatutako aholkularitza enpresa batzuek urtero ematen dituztela eragin sozioekonomikoari buruzko txostenak, aldian behin ebaluatzen eta kuantifikatzen dutela Sendavivak Nafarroako Foru Komunitatean sortzen duen inpaktua, eta Sodenak txosten horiek aurkeztu dizkiola Kontuen Ganberari, behin-behineko txostena eman baino lehen.

Beraz, Sendaviva proiektu estrategikoa da Foru Komunitateko turismo eta aisia sektorearentzat, eta jaso ditu Nafarroako Gobernuaren baimen egokiak eta Nafarroako Parlamentuaren babesa.

Aurrean adierazitakoarekin bat, iradokitzen da 22. orrialdekoazken-aurreko paragrafoa ordezte:



“Sodenarentzat, laguntza finantzario horren arrazoiaren oinarria da Sendaviva proiektuak eragin positiboa eta errentagarritasuna dituela ikuspuntu sozioekonomikotik. 2007tik al-dian behin eragin sozioekonomikoari buruzko azterlanak egiten dira, eta horien emaitzek erakusten dute Sendavivaren eragina handitzen joan dela, eta haren balio sozioekonomi-koak, Sodenaren arabera, egindako inbertsioa justifikatzen duela (...)” (geuk jarri dugu azpimarra); ho-

rren ordezko paragrafoak honela dio:

“Sodenak Parquenasari eman dion laguntza Nafarroako Gobernuak hainbat legegintzaldi-tan erabili duen politikaren esparruan gauzatu da; izan ere, Nafarroako turismo eta aisia arloarentzat estrategikoa den proiektu bat sendotu nahi izan du Gobernuak, betiere aintzat hartuta haren eragin sozioekonomikoa”.

HIRUGARRENA.- PARQUENASA SOZietate Publiko BilakatzEA

Behin-behineko txostenean han eta hemen aipatzen da Sodenak maileguak kapitalizatzeko aukera, eta gogora ekartzen dira 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratuaren ondoriozko mugak eta Sodenak, mailegu-emaile gisa, eta Sozietateak, mailegu-hartzaile gisa, sinatu dituzten hurrenez hurreneko gehigarrien ondoriozkoak.

Hori dela-eta, adierazi beharra dago aipatu maileguak kapitalizatzeko eta, kasua hala balitz, Parquenaso sozietate publiko bilakatzeko, 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratu horretan ezarritako baldintzak betetzeaz gainera, Nafarroako Gobernuaren baimena beharko litzatekeela, Nafarroaren Garapen Sozietatea (Sodena) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen eta Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen arabera.

Hala bada, Sodenaren jokabidea bat etorri da: (i) 2005eko abenduaren 30eko finantzaketa kontratuarekin, Parquenasaren kapital sozialaren gehiengoa eskuratzea eragozten baitzion; (ii) Nafarroaren Garapen Sozietatea (Sodena) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearekin, Nafarroako Gobernuaren baimena exijitzen baitu, betiere, kapital sozialaren % 45etik gorako partaidetza eskuratzeko; (iii) eta Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearekin, hark ere Nafarroako Gobernuaren baimena eskuratzea exijitzen baitu sozietate publiko bat sortu ahal izateko.

Halaber, alegazio honetan azaldutakoa oinarri, gero emanen den behin betiko txostenean honako paragrafo hauek era honetara osa daitezela iradokitzen da:

- 7. orrialdean, azken paragrafoan: “(...) Azkenik, gogoratu behar da Sodenak % 45etik gorako partaidetza hartu ahal izateko beharrezkoa zatekeela Nafarroako Gobernuak baimen egokiak ematea, Nafarroaren Garapen Sozietatea (Sodena) sortzeari buruzko



[urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen eta Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen arabera](#)”.

- 9. orrialdean (1. paragrafoaren azkenean): “(...) [\(horretarako, betiere, beharrezkoa zatekeen Nafarroako Gobernuaren baimen egokia, Nafarroaren Garapen Sozietatea \(Sodena\) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen arabera eta Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen arabera, eta 2005eko abenduko finantzaketa akordioan ezarritako baldintzak bete behar ziratekeen\)](#)”.

- Eta 9. orrialdean bertan, 4. paragrafoaren azkenean: “(...) [Nolanahi ere, Parquenaso sozietate publiko bilakatu ahal izateko, beharrezkoak lirateke Nafarroako Gobernuaren baimenak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea betetzeko, eta, Sodenak Parquenasaren kapital sozialean % 45eko partaidetza gaindituko balu soilik, Nafarroaren Garapen Sozietatea \(Sodena\) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legea betetzeko](#)”.

Hori guztia dela-eta,

Nafarroako Kontuen Ganberari **ESKATZEN DIOGU** idazki hau aurkeztutzat eman eta onar dezala, eta formulatutzat eman ditzala “Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak” izeneko behin-behineko fiskalizazio txostenari egindako alegazio hauek, behar diren ondorioak izan ditzaten eta gero emanen den behin betiko txostenean aintzat har daitezen.

Iruñean (Nafarroa), 2023ko urriaren 31n.

Nafarroaren Garapen Sozietateko Inbertsioen zuzendaria: Eugenia Lecumberri Alli

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko zuzendari nagusia: Francisco Fernández Nistal



Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Batera aurkeztu dituzten alegazioengatik eskerrak ematen dizkiegu Nafarroaren Garapen Sozietatea SLren (aurrerantzean, Sodena) eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLren (aurrerantzean, NEKP) ordezkariari. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, alegazioek ez dutelako edukia aldatzen. Hala ere, Ganbera honek alegazioen alderdi hauek nabarmendu nahi ditu:

- Lehenbiziko alegazioari dagokionez
- Testuan aipatzen da *martxoaren 25eko EHA/733/2010 Agindua, zenbait egoeratan jarduten duten kontabilitate alderdiak onesten dituen*, eta honako hau adierazten dugu horri buruz:

Testuan ez da aginduaren izen osoa jarri. Honako hau da: *EHA/733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, zenbait egoeratan jarduten duten **enpresa publikoen kontabilitate alderdiak onesten dituen***. Parquenasara merkataritza sozietate pribatua da. Beraz, sozietate edo enpresa publikoaren kalifikazio juridikorik ez duenez (Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen eta Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen arabera), ez dago aipatu aginduaren aplikazio eremu subjektiboaren barruan. Beraz, Ganbera honen iritziz, agindu hori ez zaio aplikatu behar Parquenasari.

Sodenaren urteko kontuen arabera Parquenasari kobratzeko dauden kredituak kostu amortizatuko finantza-aktibo gisa kalifikatuta daude. Hortaz, ekitaldi bakoitzaren itxieran balorazioa egin behar da Kontabilitate Plan Orokorreko 9. balorazio arauari jarraikiz, eta balorazio hori ez da oinarritu behar Parquenasak bere aktibo materialei ematen dien kontabilitate-tratamenduan, are gutxiago ministro-agindu hori aplikatzekoa ez zaiolarik.

Kontuan hartuta 9. balorazio araua eta bai Sodenak bai NEKPk berak aitortutako inguruabarrak –hala nola maileguak itzultzea xede duen bideragarritasun planik ez izatea edo Parquenasaren finantza egoera bera–, Sodenaren urteko kontuetan balio-narriadurarengatiko galera islatu beharko zatekeen kontabilitatean.

- Aipatu da Ganberak ez zuela ezer adierazi Sodenaren urteko kontuetan balorazio-zuzenketa jasotzeko komenigarritasunari edo beharrari buruz. Bada, “Nafarroaren Garapen Sozietateak 2002-2013 urte bitartean enpresa partaidetuetan eginiko inbertsio finantzarioei buruzko fiskalizazio txostena” izenekoan hiru gauza garrantzitsu adierazi genituen, Ganbera honen bi txostenen arteko kontraesanik inola ere ez dakartenak:
 - a) Denbora faktorea elementu garrantzitsua da maileguen eta gisako finantza tresnen berreskuragarritasunaren balorazioan. Sodena maileguak ematen hasi zenetik 18 urte igarotakoan egin da txosten hau, eta Parquenasak ez du ezertxo ere itzuli.



Aurreko txostena, aldiz, zortzi urte igarotakoan egin zen, eta parkea 2004an ireki zen jendearentzat.

- b) Eskura izan ditugun espedienteen berrikuspenean, Nafarroako Gobernuko Kontuhartzaitza Nagusia bera da 2020tik ohartarazi eta agerrarazi duena maileguak berreskuratzeko aukerari buruzko bideragarritasun planik ez dagoela eta luze joko lukeela maileguak berreskuratzeak. Hori berritasun dokumental esanguratsua da eta kontuan hartu dugu gure fiskalizazioan, gure txostenean jaso den moduan.
 - c) Azkenik, 2016tik aurrera gutxienez, Sodenak berak adierazi izan du, maileguak emateko baimen-eskaerak Nafarroako Gobernuan izapidetu dituenean, Parquenasarentzat baimendu behar ziren mailegu horiek hutsegintzat jotzen zirela. Hori jada aipatu da txosten honetan.
- Bigarren alegazioari dagokionez:
 - “Kontabilitate-ondorioak” terminoaren ordez “merkataritza-ondorioak” terminoa erabili dugula-eta, adierazi behar dugu, Parquenasan partaidetza-maileguen ondorioei buruz egin dugun analisian, uztailaren 4ko 16/2007 Legeari berari (zeinak 7/1996 Errege Lege-dekretuaren 20. artikulua d) apartatua aldatzen baitu eta aztergai dugun kasuaz ari baita) “*Merkataritza legeria kontabilitatearen arloan erreformatu eta egokitzekoa*” deitu zaiola. Beraz, gure txostenean erabilitako terminologia zuzena da.
 - Gure txostenak ez du behin ere aipatzen partaidetza-maileguen epearen arauketarik. Soil-soilik Ganbera honek nabarmendu du Parquenasak 18 urte daramatzala egoera horretan eta ezin diola betiko eutsi horrela, ez delako konponbiderako inolako neurririk hartu.
 - Bistan da fiskalizatutako epeak hainbat legegintzaldi hartzen dituela, eta horretatik harago azken oharrak ez du ezer garrantzitsurik eransten gure txosteneko konklusioak aldarazten dituenik.
 - Hirugarren alegazioari dagokionez, Nafarroako Garapen Sozietatea sortzeari buruzko 1/1984 Foru Legean eta Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legean ezarritako zenbait betekizun betetzeari buruzko aipamenak txosteneko hainbat ataletan iruzkindu dira dagoeneko.

Amaitzeko, kontabilitate gaietatik harago, Ganbera honek beharrezkotzat jotzen du azpimarratzea ez dela zentzuzkoa merkataritza sozietate pribatu bat, inguruan eragin sozioekonomiko nabarmena duen jarduera bat kudeatzen duena –ez dugu hori zalantzan jarri– oso-osorik funts publikoez mantentzea.